

BAGERAREN BULETINA

2018 maiatza

Kaixo bagerakide,

Maiatzeko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartearen ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

Elkarrizketa Filosofikoak

Maiatzaren 7an, arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara, izango da hilabete honetako Elkarrizketa Filosofikoa ohi bezala Urrats Euskaltegian ([Amezketarrak kalea, 12](#)). Landuko den gaia: Pentsamendu *heterozuzena*. Zer da? Nola funtzionatzen du? Ze ezaugarri/osagai ditu? Nola aurre egin pentsamendu horri edo "zapalduen zientzia" eraiki beharraz. irakurtzeko: Monique Wittig, *Pentsamendu heterozuzena*. LISIPE Susa literatura (*Pentsamendu heterozuzena (13-25 or.)*, *Kontratu soziala dela eta (65-77 or.)* eta *Homo sum (79-90 or.)*

Ekogunera irteera

Maiatzaren 12an, Kutxa Ekogunera antolatu dugu bisita gidatua. Bisita gidatu orokor honetan, ordu eta erdiz, parkearen gune eta edukiak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango duzu gida beten laguntzaz. Jarraian Añorgara joango gara bazkaltzera.

10:45etan Okendoko autobus geltokian geratu gara autobusa hartzeko (autobus txartela eraman). Animatuz gero, 21 euro ES33 30350092570920042476 laboraleko kontuan egin behar da diru sarrera (izen eta abizenak jarritz kontzeptuan) maiatzaren 10erako.

Maiatzeren 19an Kantu Jira eta erromeria

Maiatzaren 19an, Parte Zaharreko Fermin Calbeton kalean, 12:00etan izango da hilabete honetako Kantu Jira. Lagunekin batera euskal kanta tradizionalak abesteko aukera paregabea.

Egun berean, Bagera Elkarteak, Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren laguntzaz, euskal dantza tradizionalen inguruko erromeria antolatu du Parte Zaharreko Plaza Berrian (Konstituzio plazan) 18:30etatik aurrera. Donostiako Udaleko txistulariak joko dituzten kantuak dantzatzeko aukera izango dugu Aitziber Aiesta eta Jon Iraola dinamizatzaileek lagunduta.

Europako hizkuntzan maparen itzuleraren ospakizuna



Apirileko Bageraren buletinean aipatu bezala, apirilaren 11n, Donostiako Udalak Brontzezko Europako Hizkuntzen Mapa berria jarri zuen lehengoaren kokapenetik oso gertu (Tabakaleraren Mandasko Dukearen kaleko aldean). Egun berean ospakizun festa egin nahi izan genuen baina ezinezkoa izan zitzaigun eguraldiagatik.


Maiatzaren 21ean, Kultur Aniztasunaren Mundu Eguna dela probestuz, arratsaldeko 18:30ean Europako eta Donostiako hizkuntzen alde eta hauek bultzatzeko donostiarrek behin eta berriro erakutsi duten grinagatik ospakizun xumea egingo dugu mapa berriaren aurrean. Arte-lanaren egileen azalpenak ezagutuko ditugu eta musika zein beste sorpresa batzuek gozatuko dugu guregatik eta gure hizkuntzengatik.

Mintzodromoa

Maiatzaren 30ean, San Telmo Museoan burutuko dugu beste behin ere Mintzodromoa. Euskara Zerbitzuarekin, Donostiako Euskaltegiekin eta San Telmo Museoarekin elkarlanean.

Oraingoan, gaia Euskaraldia izango da; azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte euskararen erabilera areagotzeko Euskal Herri mailan burutuko dugun ariketa soziala, alegia.

Bi txandatan banatuko dugu Mintzodromoa: 11:00etan eta 12:00etan. Izena emateko idatzi mintzalaguna@bagera.eus helbidera edo deitu 943 005 074 zenbakira.



Mintza Eguna Hondarribian

Ekainaren 2an, Hondarribian izango da aurten Euskal Herriko mintzalagunak bilduko gaituen festa handia. Blagan euskara elkartearekin bat eginda, Mintza Egunak euskaltzale guztiei euskarari atxikitzeko deia zabalduko die, mintza taldeetan ereindako olatua, elkarrekin euskaraz aritzeko ohitura, kalera zabaltzeko!

Bazkariko txartelak maiatzaren 24a arte eskatzeko aukera izango duzue (17€). Informazio gehiago Bagera Elkartean. Bazkarirako Txartelak 23 euroan salduko dituzte, eta Euskadiko Kutxa kontu honetan dirua sartuta eman daiteke izena: 3035 0145 65 1450050445.

Euskal Herria Kantuz

Ate joka datorkigu 2018ko Euskal Herria Kantuz eguna. **Ekainaren 2an** ospatuko dute egun handia Euskal Herri guztitik iritsitako kantuzaleek: ongi etorria, kantuak, herri bazkaria, bertsolariak, abeslariak... egun osoko egitaraua prestatu dute. Egitarau osoa [bageraren webgunean](#) topa dezakezue.

14:30ean, bazkaria Salestarren patio estalian egingo da. Bazkariaren ostean, bertsolariak, Fermin Valentzia eta Xendarineko ahizpak kantariak, dantzak eta beste izanen dira.

Bazkarirako Txartelak 23 euroan salduko dituzte, eta Euskadiko Kutxa kontu honetan dirua sartuta eman daiteke izena: 3035 0145 65 1450050445.

AUZOAK

Intxaurrondo, Lagunekin Kantari

Aurten 16. urtez “Lagunekin kantari” ekimena antolatu dute Larrotxene Kultur Etxean 19:30etatik aurrera. Saio guztiak bi zatitan banatzen dituzte. Batetik, kantariak jendearentzat kontzertua eskaintzen dute lehenengo zatian, euren abestiek. Bigarren zatian, berriz, entzule izateaz gain, kantari eta partaide ere izaten dira herritarrok, eta abesti herrikoiak kantatzen dituzte guztiek elkarrekin. **Maiatzaren 14an** Patxi Saez arituko da, **maiatzaren 21ean** Pantxoa Carrere eta **maiatzaren 28an** Donostiako kanta taldeetako lagunak izango dira protagonista. Ekainaren 1ean 19:30ean Kantu Jira eta 21:30ean Kantu-afaria Artzak Ortzeok Elkartean

Egia, Egia Euskaraz Eguna

Egia Euskaraz Eguna bi urtean behin Egian euskararen gaia jendarteratzeko antolatzen duten ekimena da. Aurtengoan Euskaraldian jarriko dituzte indarrak **maiatzaren 5ean** eta beraz, egun hau baliatuko dute Euskaraldiaren aurkezpena egin eta auzotarrei xehetasun guztiak azaltzeko. Gainera, beroketa moduan egun batez euskaraz bizitzeko simulakroa egingo dute. Auzokide guztiak gonbidatzen dituzte Ahobizi edo Belarriprest moduan parte hartzera.

Amara Berri, AB Krosa

5. urtez, Amara Berriko Berritsu euskara batzordeak euskararen aldeko lasterketa herrikoia antolatu du; AB Krosa. Aurten **ekainaren 2an** izango da eta ohi bezala [abkrossa.eus](#) helbidean izena eman daiteke.

Lasterketan parte hartzeko bi aukera egongo dira: 3 kilometroko ibilbidea eta 6 kilometrokoa. Bestalde, maiatzean zehar entrenamendu herrikoiak egingo dira.

Lasterketaz gain, aurten ere haurrentzako jolasak eta haurren korrikaldia egingo dituzte, eta lasterketaren ostean kontzertu bat egongo da Probestu plazan.

“Euskaraldia, 11 egun euskaraz” auzoetako aurkezpenak

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte egingo den “Euskaraldia, 11 egun euskaraz” ekimenaren aurkezpena egiten ari gara auzoetan. Hilabete honetan, **Grosen (maiatzaren 18an 19:00etan Hondarpe Auzo elkartean)** eta **Antiguan (maiatzaren 16an 19:00etan Lugaritz Kultur Etxean)** egingo ditugu.